

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko apirilaren 15a

50. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-24/CCO-00034. «Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontratazio publikoko arriskuen azterketa (2019-2023)» fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/CCO-00034. «Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontratazio publikoko arriskuen azterketa (2019-2023)» fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak «Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontratazio publikoko arriskuen azterketa (2019-2023)» fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c)

artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA

ORRIALDEA

I. SARRERA.....	4
II. KONTRATAZIO PUBLIKOA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAN	4
II.1. Informazio orokorra.....	4
II.2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontratazio-datuak (2019-2022)	5
II.3 Kontratazio publikoko arriskuak	6
III. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK	7
IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK	9
V. KONTRATAZIO PUBLIKORAKO BATZORDEAREN ETA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOKO ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAKO KONTRATAZIO-ORGANOEN ERANTZUKIZUNA.....	11
VI. KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA	11
1. GEHIGARRIA. ARAU ESPARRUA.....	12
2. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK	12
2.1 Informazio-iturriak eta interkonexioa.....	12
2.2 Datu-analisisa	16
2.3 NKAREN datu irekiak.....	20
2.4 Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren estrategia digitala	20
2.5 Munta txikiko kontratazioaren araubide berezia	21
ERANSKINA. NAFARROAKO KONTRATAZIO ATARIAN DERRIGORREAN ARGITARATU BEHARREKO DATUAK	26
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK	28
KONTUEN GANBERAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNA	32

I. SARRERA

Kontuen Ganberak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari (NFKA) kontratazio publikoari buruzko auditoretza egitea jaso zuen 2024ko urteko fiskalizazio-programan.

Lana 2024ko martxotik 2024ko ekainera bitarte egin zuen horretarako eraturako lantaldeak, zeina auditoretzako bi teknikarik, informazio-sistemetako teknikari batek eta auditore batek osatu baitzuten, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko eta administratiboen laguntzarekin egin ere.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Kontratazio Publikorako Batzordeko ordezkariari eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren Telekomunikazioetako eta Digitalizazio Zuzendaritza Nagusiko langileei lan hau egitean emandako laguntzagatik.

II. KONTRATAZIO PUBLIKOIA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAN**II.1. INFORMAZIO OROKORRA**

Kontratazio publikoak garrantzi eztaba daezina du sektore publikoko edozein esparrutako ekonomian (estatukoa, komunitatekoa edo tokikoa). Datu estatistikoaren arabera, NFKA¹, 2019-2023 aldian, BPGaren ehuneko lau egiten du batez beste, honako bilakaera honekin:

	(milioitan)				
	2019	2020	2021	2022	2023
2. kapitulua. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	676	738	744	827	907
6. kapitulua. Inbertsioak	136	142	170	198	251
Guztira*	811	880	914	1.026	1.158
Nafarroako BPG**	20.873	18.937	20.518	22.595	23.904
%	4	5	4	5	5

*Iturria: Nafarroako kontu orokorrak.

**Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

2014an onetsi ziren egun indarrean dauden kontratazio-zuzentarauak, "laugarren belaunaldiko" deiturikoak, eta horiek kontratazio publikoaren arloko Europako araudi berria osatzen dute, eta aurreko 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen. Kontratazio publikoari buruzko 2014/24/EB Zuzentaraua eta emakida-kontratuen adjudikazioari buruzko 2014/23/EB Zuzentaraua dira. Nafarroako Foru Komunitatean, zuzentarau horien transposizioa egin zen apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen, Kontratu Publikoari buruzkoaren, onespenerarekin (aurrerantzean, NKFL).

Aipaturako zuzentarau horien onespenerarekin, Europar Batasunak berariaz adierazi zuen kontratazio publikoa ikuspegi estrategiko batetik begiratu behar dela, Europar Batasunaren helburuak lortzeko balio duen beste elementu bat bezala. Hona hemen elementu horietako beste batzuk: gastu publikoa efizientziaz kudeatzea, enpresa txiki eta ertainen (aurrerantzean, ETE) parte-hartzea areagotzea eta helburu sozial komunen alde egitea.

¹ Datu horiek ez dute barnean hartzen sektore publiko instituzionala.

II.2. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN KONTRATAZIO-DATUAK (2019-2022)

Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren Ondare Zerbitzuak kontratazio-oroitidazkiak egiten ditu urtero, eta Nafarroako Kontu Orokorraren dokumentazioan sartzen dira. Informazioa lantzeko datuak Kontratuen Erregistrotik hartzen dira.

Honako koadro hauetan jaso ditugu 2019-2023 tartean gehitutako datuak²:

Kontratu kopurua	2019	2020	2021	2022	2023
NFKAko departamentuak	253	265	283	256	317
Erakunde autonomoak	125	168	209	255	284
GUZTIRA	378	433	492	511	601

(milakoak)

Adjudikazioen zenbatekoak	2019	2020	2021	2022	2023
NFKAko departamentuak	98.000	49.000	180.000	108.000	164.000
Erakunde autonomoak	55.000	71.000	69.000	184.000	212.000
GUZTIRA	153.000	120.000	249.000	292.000	376.000

Departamentuen prozedurak (%)	2019	2020	2021	2022	2023
Irekia	68	47	67	70	78
Murriztua	1	1	-	1	-
Negoziatua	-	-	-	-	-
Negoziatua, lizitazio-deialdirik gabekoa	28	32	12	18	18
Sinplifikatua	3	4	8	11	4
Prozedurarik gabe ³	-	17	13	-	-
	100	100	100	100	100

Erakunde autonomoen prozedurak (%)	2019	2020	2021	2022	2023
Irekia	74	58	67	74	67
Negoziatua	14	1	-	-	-
Negoziatua, lizitazio-deialdirik gabekoa	12	11	12	15	12
Sinplifikatua		4	8	2	8
Prozedurarik gabe		26	13	10	13
	100	100	100	100	100

Informazio horrek kontratazioari buruzko datu deskriptiboak ematen ditu, adierazle kuantitatiboaren bidez: besteak beste, kontratu kopurua, bolumen ekonomikoa eta adjudikazio-prozeduren garrantzi erlatiboa.

Egia da informazio horretan kontratazio publikoari buruzko zenbait ondorio garrantzitsu jaso direla, baina, halere, informazioaren erabilgarritasuna erlatiboa da, analisi sakon baterako kontratazio-prozesuarekin lotutako parametro askotarikoak identifikatu eta interpretatu beharko lirakeelako.

Benetan, parametro horiek azaleratzen dituzte objektiboki kontratazio publikoko jardunbideak, dinamikak eta baldintzatzaileak, eta orotara, horiek eragiten diote benetan merkatuko lehia eraginkorren mailari, eta beraz, besteak beste, baita kontrataziorako erabiltzen diren funts publikoen erabilera eraginkorren bermeari ere.

² Ganbera honek aztertu gabeko datuak.

³ "Prozedurarik gabe" kontratu gisa jasotakoak larrialdiko izapidetzezko espedienteen bidez hitzartutako kontratuak dira nagusiki, Ondare Zerbitzuak jakinarazi duenez.

Ildo horretatik, eta kontuan hartuta kontratazio publikoak informazio-bolumen handia sorrarazten duela, jatorriz biltzen diren moduan dauden datuen bidez, eta kontuan hartuta, orobat, datu bakartuen erabilera erlatiboa eta mugatua dela, datuon prozesamendu egoki batek eta adjudikazio-prozeduretan eragiten duten aldagaien arteko analisiak soilik emanen dute modua kontratazio publikoaren izaera dinamikoa interpretatzeko eta, besteak beste, honako kontu hauei erantzuteko:

- Hautatutako adjudikazio-prozedurak ba al du benetako eraginik lehian eta efizientzia ekonomikoan?
- Parte-hartzaile kopuruak benetako lehia handiagoa sorrarazten al du adjudikazio-prezioan?
- Kontratu-adjudikazioan, zein dira benetan erabakigarriak diren irizpideak?
- Eskatzen diren kaudimen-baldintzek sarrera-oztopoak eragiten al dizkiete ETEei?

II.3 KONTRATAZIO PUBLIKOKO ARRISKUAK

Planteamendu orokorra

Kontratazio-bolumenak, kontratazio-organoeak, kontratu-motak eta haren CPV kodeek⁴, adjudikazio-prozedurek, kaudimen-baldintzek eta adjudikazio-irizpideek, eta beraz, adjudikazioen emaitzak, kontratazio publikoaren izaera dinamikoari zentzua emateaz gainera, kontratazio publikoko prozesuko arrisku-arlo nabarmenak identifikatzeko modua ematen dute.

Lan honetan, garrantzi berezia ematen zaio kontratazio publikoak eragiten duen arriskuari, are gehiago kontuan izanda arrisku-analisan oinarritutako auditoretza-ikuspegia dela Nazioarteko Auditoretza Arauen (NIA-ES) eta Sektore publikoko oinarrizko fiskalizazio-printzipioen (ISSAI-ES) pean egindako auditoretza-jardueraren ardatz nagusia. Hori horrela, lan honetan, garrantzi handia eman diogu kontratazio-organoei topatzen dituzten arrisku nagusiak identifikatzeari, eta gero horiek arrisku-adierazleekin lotzeari.

Adierazle horiek *–red flag* edo *bandera gorri* esaten zaie– iruzurra egoten ahal dela erakusten duten alarma-seinaleak, adierazleak edo zantzuak dira. Bandera gorri bat egoteak ez du derrigorrean esan nahi iruzurra egon denik, baina adierazten du jarduera-arlo jakin batek arreta gehigarria eskatzen duela iruzur potentziala ezeztatzeko edo baieztatzeko; hori horrela, arrisku-adierazleak zehazteak modua ematen die kontrol-organoei arrisku-analisi efektiboan arabera ezartzeko laginak aukeratzeko jarraibideak.

Arrisku-arloak

Kontratazio publikoko arrisku nagusiak kontratazio-prozeduraren faseen arabera multzokatzen ahal dira.

- Prestakuntza-fasea. Kontratazio-espeditente bat prestatzeko jarduketetan, kontratazio publikoaren printzipio gidariak arriskuan jartzen ahal dituzten erabakiak hartzen dira. Adibidez:

- Kontratuaren bidez ase nahi diren beharrak ez aztertzeak eta justifikatzeak kaltea eragiten dio funts publikoen erabilera efizienteari.

- Lizitzaileen parte-hartzea mugatzen duen prozedura bat aukeratzeak eragin zuzena du lehian.

- Operadore jakinei mesede egiten dieten pleguak eta kaudimen- eta adjudikazio-irizpideak diseinatzeak eragina du lizitzaileen tratu-berdintasunean.

- Kontratuaren zenbateko edo balio zenbatetsia merkatuarekin bat ez etortzea gastu-ekonomiaren kontrakoa da.

⁴ Kontratuertarako Hiztegi Batua (CPV). Kontratu publikoak sailkatzeko sistema bateratua da, derrigorrezkoa Europar Batasunean 2006az geroztik, eta kontratuaren xedea deskribatzeko erabilitako erreferentziak bateratzeko modua ematen du.

- **Lizitazio-fasea.** Gardentasun-printzipioaren urraketa da prozeduraren fase horretako mehatxu nagusia. Lizitazioen iragarpena eta eskaintzak aurkezteko behar den informazioaren lorbidetza mugatzea lehia murrizten duten eta tratu-berdintasuna mehatxatzen duten arriskuak dira. Ezinbestekoa da, orobat, eskaintzak behar bezala zaintzea, sekretua urratzeko arriskua edo aurkezten diren proposamenen manipulazioa ekidite aldera.

- **Adjudikazio-fasea.** Behar-beharrezkoa da adjudikaziodun suertatzen den operadore ekonomikoaren aukeraketan objektibotasunez eta gardentasunez jokatzeko, eskaintza onena aukeratuz tratu-berdintasuna eta gastu-efizientzia bermatzeko. Fase honetan identifikatutako arrisku nagusiak honako hauekin lotuta daude: kontratazio-mahaietako kideen inpartzialtasunarekin, kolusiozko jardunbideak ez hautematearekin eta txosten teknikoetako zehaztugabetasunarekin eskaintza bakoitzari emandako puntuazio justifikatzeari dagokionez.

- **Exekuzio-fasea.** Fase honetan, kontratua adjudikatzean oinarri izan ziren klausulak eta baldintzak hutsaltzeko arriskua dago. Gainbegiratu eta egiaztatu egin behar da lizitatzaile bat eta ez beste bat aukeratzea eragin zuten baldintzak betetzen direla (epeak, hobekuntzak, bitarteko pertsonalen eta materialen esleipena, azpikontratazioa, irizpide sozialak eta exekutatzeko baldintza bereziak). Era berean, gastu-ekonomian eragina izaten ahal dute prestazioen hasierako prezioa legez ezarritako mugetatik harago handitzen duten kontratu-aldaketek, aldaketa justifikatzen duen arrazoirik ez dagoenean.

III. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Helburuak eta norainokoa

Hona hemen lan honek izan dituen helburuak:

- Lehiaketa-lizitazioko oztopo posibleak zehazteko modua ematen duten arrisku-arloak identifikatzea eta arrisku-adierazleekin lotzea.

- Nafarroako Kontratazio Atariko kontratazioaren gardentasunaren betetze-maila, Kontratuei buruzko 2/2018 Foru Legearen 88. artikuluan eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 23. artikuluan xedatutakoarekin bat.

NFKAren departamentuek eta erakunde autonomoek haren esparruan egindako kontratazio publikoa da fiskalizazioaren norainoko subjektiboa. Kanpoan utzi dira sektore publiko instituzionaleko partaide diren gainerako entitateak.

Norainoko objektiboa dira prozedura irekiaren eta prozedura murriztuaren bidez adjudikatzen diren obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuak, horien balio zenbatetsiak Europako atalasea gainditu ala ez, bai eta munta txikiko kontratazioaren araubide berezia ere.

Ez dira lan honen norainokoa sartzeko lizitazio-deialdirik gabeko prozedura negoziatuak eta sinplifikatuak. Ez dira sartzeko, ezta ere, obren eta zerbitzu publikoen emakida-kontratuak.

Lizitazio-iragarkia 2019-2023 aldian argitaratu zaien kontratuek osatzen dute denbora-norainokoa; izan ere, 2019an hasitako lizitazio guztiak egun indarrean dagoen Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen indar-hartze betean kokatzen dira.

Metodologia

Lan honen funtsezko premisa da kontratazio publikoaren prozedurako arrisku-arloak hautematea; horretarako, Nafarroako Kontratazioaren Atarian (aurrerantzean, NKA) argitaratzen diren kontratazio-espedienteekin lotutako datuak masiboki deskargatuko dira, eta gero, batera tratatuko eta prozesatuko dira.

Horretarako, eta nahiz eta lan hau ez den auditoretza informatikoa, kontratazio publikoaren kudeaketaren oinarri diren informazio-sistemen eta datu elkartuen analisia eta azterketa egin dugu. Gure iritziz, ezinbestekoa da behar bezain sendoak izatea datuen diseinua eta konfigurazioa, bai eta haien elkarrekiko lotura ere, eta beraz, haien trazabilitatea, informazioaren koherentziari eta kalitateari buruzko ondorioak atera ahal izateko behar besteko arazoizko segurtasunez.

Kontrako kasuan, hau da, datu-esportazioak mugak dituenen, datuak kalitate⁵ txarrekoak direnean, espedienteen trazabilitatean zailtasunak daudenean eta kontrolak (eskuzkoak edo automatizatuak) ahulak direnean, datuen analisi digitala eta masiboa murrizten da, eta horrek azterketaren konfiantza mugatzen du. Horrelako mugak daudenean, funtsezko prozeduretan soilik oinarritutako ikuspegiz egin behar izaten da audiotoretza, behar bezain esanguratsuak diren proba alternatiboak eta ausazko laginak eginez. Lan honen norainokoa kontuan hartuta, beraz, baztertu egiten dugu horiek egiteko aukera.

Txosten honetan egindako azterketa NKaren informazioan eta datu-analisan oinarritu da (informazioa beste informazio-iturri batzuekin kontrastatu bada ere; aurrerago zehaztuko ditugu iturriak). Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman argitaratzeko eskatzen diren datuen formatuari dagokionez, estatu mailan, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, honako hau dio 347.8 artikuluan: *“Informazioa estandar ireki eta berrerabilgarrietan argitaratuko da”*.

Nafarroako Foru Komunitatean, nahiz eta Kontratuei buruzko Foru Legeak (KFL) ez duen berariaz eskatzen NKAn argitaratu behar den informazioari buruzko eskakizun hori, azpimarratzen dugu maiaztaren 17ko 5/2018 Foru Legeak, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoak, eskatzen dituela, oro har, gardentasun-ezaugarri horiek jarduera-publikoaren eta gobernu-ekintzaren esparruetan.

Ondorio horietarako, honela definitzen da foru lege horretan datu-irekitzea: *“Datuak euskarri digitaletan, estandarizatuan eta irekian eskura jartzea, haiek ulertu eta berrerabiltzeko aukera ematen duen egitura argi bati jarraikiz, helburu hauekin: kudeaketa publikoaren gardentasuna sustatzea, haren azterketa eta ebaluazioa egiteko; administrazioen arteko elkarreragingarritasuna sustatzea; balioa eta aberastasuna sortzea datu horietatik eratorritako produktuen bidez”*.

Txosten honen ondorioetarako, hau da Ganbera honen iritzia:

- Datu irekitzat jotzen dira formatu ireki eta berrerabilgarrian lortzen ahal direnak⁶.
- Argitaratutako informazioak osotasun-eskakizuna bete behar du; hau da, KFLren 88. artikuluan eskatzen diren datu guztiak jaso behar ditu.
- Trazabilitateak egon behar du kontratazio-espediente guzti-guztietako lizitazio-, adjudikazio- eta amaiera-prozesuan.

⁵ Datuen kalitate txikitat jotzen dira, besteak beste, datu falta, erroreak eta datuak formatu okerrean egotea.

⁶ Datu irekitzat jotzen dira, kontzeptu gisa, oro har, formatu irekian dauden eta edozein pertsonak edozein xedetarako erabiltzen, berrerabiltzen eta partekatzen ahal dituen datuak (2019/1024 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, ekainaren 20koa, sektore publikoko datu irekiei eta informazio-berrerabilpenari buruzkoa).

Norainokoaren mugak

Honako hauek dira gure lanean eragina izan duten mugak nagusiak:

- NKAn, batzuetan, kontratazio-organoetako kudeaketa-unitateek eskuz egiten dute datuen erregistroa. Horrez gainera, ez dago derrigorrean erregistratu beharreko informazioa ziurtatzeko eta baliozkotzeko kontrolik. Bada, bi alderdi horiek agerian utzi dute atari horretako informazioa osatugabea dela.

- Informazioa jartzeko eremuak edo laukiak egoteak ez du esan nahi bete direnik, datuek formatu zuzena dutenik edo balioa behar bezala sartu denik; eta horrek guziak esportatu beharreko datuen kalitatea baldintzatzen du.

- Kontratazio-espeditenteen kodetze-sistemak ez dira berdinak NKAn, lizitazio elektronikorako plataforman (PLENA), Extr@ espediente-kudeatzailean eta SAPGE21 ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketako sisteman, eta horrek kontratazio-espeditenteen trazabilitatea mugatzen du.

- Kontratazioarekin lotutako datu gehienak digitalizatutako dokumentuetan egoteak horiek datuen deskarga masiboaren bidez esportatzea eta tratatzea eragozten du.

KFLri jarraituz NKA erabiltzera behartuta dauden entitate guztien informazio-sistemak integratzeko beharrak NKAREN funtzionalitatea baldintzatzen du.

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Eginiko lanean oinarriturik, honako ondorio hauek atera ditugu:

- Kontratazio publikoaren alorrean, NKAREN bidez hezurramitzen da gardentasuna; hortaz, informazio publikoko funtsezko tresna da hori. Bada, kontratazioaren fase guztietako datu multzoa⁷ jaso behar da hor, hasierako lizitaziotik hasi eta amaierako likidaziora arte.

- Ataria KFLn ezarritako informazio guztia biltzeko diseinatuta dago, baina egiaztatu dugu ez dela derrigorrezko informazio guztia argitaratzen.

Batzuetan, dagozkien kontratazio-organoetako unitate kudeatzaileek eskuz erregistratzen dituzte datuak, eta horrez gainera, ez dago kontrolik; horrek guztiak arriskua dakar argitaratzen den informazioaren osotasunerako. Horrek esan nahi du urritasun nabaria dagoela kontratazio publikoaren gardentasun-printzipioa betetzean.

- Lortutako datuen inkoherentziek eta/edo gorabeherek, kontratazio-faseetako iragarkiak egun eratuta dauden moduan, modu nabarmenean mugatzen dute informazioaren trazabilitatearen analisia. Muga horrek ez dio Ganbera honi bakarrik eragiten, kontratazio publikoaren analisi erlazionalen bat egin nahi duen kanpoko edozein erabiltzailereri ere eragiten baitio.

- Gaur egun NKA denez kontratazio publikoaren alorreko gardentasun-tresna nagusia, datuen esportazioari dagokionez, egun diseinatuta dagoen moduan, ez du modurik ematen kontratazio publiko aztertzeko funtsezkoak diren datuen zeharkako analisi agregaturik egiteko.

Hortaz, ezin izan dugu informazio egituratu, esportagarri eta alderagarri egokirik lortu, arrazoizko segurtasun-mailakorik, datuen agregazioa egin eta ondorioak atera ahal izateko, eta horien bidez, kontratazio publikoaren alorreko arrisku-arloak identifikatu eta arrisku-adierazleekin lotu ahal izateko.

- Kontratazioaren informazio publikoaren xede nagusia da kontratazio publikoan gardentasuna eta efizientzia areagotzea. Datu ireki eta estandarizatueterako sarbidea emanez eta sustatuz, bultzatzen da erabakiak hartzean informazioa aztertea, eta horrela, kontratazio publikoko politika informatuagoak eta efektiboagoak lortzen laguntzen da.

⁷ Eranskina: Nafarroako Kontratazio Atarian derrigorrean argitaratu beharreko datuak.

Hori horrela, komeni da pleguen⁸ kontratazioarekin lotutako ia datu guztiak zuzenean esportatzeko moduko datu gisa zehaztuta eta estandarizatuta egotea, eta horiek ahalik eta zehaztasun handiena izatea eta beren tratamendua ahalbidetzen duen formatu batean egotea; hortaz, dokumentuak digitalizatu eta artxibo erantsi gisa sartzea mugatu beharko litzateke.

Kontratazio eraginkorra eta efizientea lortu nahi bada, eta kontrol eta gainbegiratze egokia bermatu, kontratazio-datuak automatikoki, zeharkakotasunez eta elkarrekin erlazionatuta aztertzeke eta monitorizatzeko modua ematen duten informazio-euskarri teknologikoak garatu behar dira.

- Munta txikiko kontratazio-araubide bereziari dagokionez, SAPGE21en ahalegin handia egin da kontratuen kodetzearen alorrean, eta horri esker, identifikatzen ahal dira prozedura horren bidez adjudikatzen diren kontratuak. Alabaina, behar bezala ez kodetzeko arriskua dago, eta horrek eragin zuzena du edo izaten ahal du kontratazio-araubide hori Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzeari buruzko betebeharrak betetzean. Arrisku hori desagerrarazi egin behar da, ahal den neurrian.

Gainera, iruditzen zaigu zatikatze-arriskuaren zantzuak daudela araubide berezi horren bidezko kontratazioan, batez ere Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekiko izaera horizontala eta zeharkakoa duten zerbitzu edo hornidura jakinetan, honako koadro honetan erakusten dugun eran:

Hornitzaile berarekin kontratatutako zerbitzua/hornidura	Munta txikiko kontratazioaren zenbaketakoa		Guztira 2022-2023
	2022	2023	
Informatikako kontsumigarriak	539.129	620.926	1.160.055
Datu-zentroetako zerbitzuak	218.485	241.905	460.390
Bulego-materiala	193.868	211.914	405.782
Inprimagailu-zerbitzuak	215.760	84.923	300.683
Bidaia-agentzia	128.378	150.975	279.353
Aholkularitza teknologikoa	176.201	222.096	398.297

Hori guztia dela-eta, *gomendio* hauek egiten ditugu:

- *Kontratazio-organismoek lege ezarritako informazio guztia argitara dezatela Nafarroako Kontratazio Atarian, gardentasun publikoa bermatze aldera.*
- *Baliozkotze- eta kontrol-mekanismoak ezartzea Nafarroako Kontratazio Atarian datuak eskuz sartzeko prozesuan, eta haren nabigagarritasuna hobetzea informazioaren trazabilitate egokia lortzeko. Zehazki:*
 - *Plataformak ez dezala modurik eman adjudikazio-iragarki bat erregistratzeko baldin eta lizitazio-iragarkirik adierazi ez bada.*
 - *Azter dadila ea erregistratutako informazioa zuzena den.*
 - *Plataformak modua eman dezala lizitazio-iragarki batetik dagokion adjudikaziora joateko.*
- *Ahal den neurrian, eremu giltzarrien kodetzea bateratzea (entitatea, kontratu-mota, modalitatea, prozedura), osotasuna eta plataformen arteko kontrolak hobetu ahal izateko.*
- *Plataformen arteko informazio-bikoizketak murriztea. Edonola ere, datu jakin bat zenbait plataformatan jasota badago, ez uztea organo kudeatzailearen esku datua bi plataformetan zuzen sartua izateko ardura; horretarako, baliozkotze-arauak sortu behar dira, aplikazio bakoitzaren barruko eta aplikazioen arteko osotasun-arazoak minimizatuko dituztenak.*
- *Egungo plataformen funtzionalitatea bateratuko duen aplikazio integral bat sortzeko aukera aztertzea.*

⁸ Nagusiki, ahalmena eta kaudimena, epeak, adjudikazio-irizpideak, klausula sozialak, azpikontratazioa, etab.

- *Kontratazio publikoko datuak “2030 Nafarroako Estrategia Digitala” dokumentuaren testuinguruan tratatuak izan daitezela bultzatzea eta lehenestea, eta ondorio horietarako, formatu egituratuan argitaratzea kontratazioarekin lotutako datu guztiak, halako moldez non edozein erabiltzailek datuok lortzen eta masiboki deskargatzen ahalko dituen, modu agregatuan eta erlazionatuta prozesatu eta tratatu ahal izateko.*

- *Kontratu-kodetzearekin lotutako neurri egokiak hartzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio osorako, munta txikiko kontratuen araubide bereziaren bidez adjudikatzen diren kontratuen argitalpeneko arrisku lotua minimizatze aldera.*

V. KONTRATAZIO PUBLIKORAKO BATZORDEAREN ETA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOKO ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAKO KONTRATAZIO-ORGANOEN ERANTZUKIZUNA

NFKAko eta haren erakunde autonomoetako kontratazio-organoen erantzukizuna da kontratazio publikoaren gardentasuna bermatzea KFLren 88. artikuluan eskatzen den informazioa Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratuz.

Kontratazio Publikorako Batzordeak zaindu behar du KFLren aplikazio-esparru subjektiboko parte diren entitateen kontratazio publikorako sistemaren funtzionamendu egokia.

VI. KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da gure fiskalizazioan oinarritutako konklusioak ateratzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontratazio publikoaren gardentasunari eta arrisku-arloei dagokienez.

Horretarako, fiskalizazio hori egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioei jarraituz, zeinak ISSAI-ESen baitaude ezarrita, bai eta Kanpo Kontroleko Organoen Fiskalizazio Gida Praktikoetan jasotako gidalerroei jarraituz ere.

Printzipio eta jarraibide horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin ditzagula, honako helburu honekin: arrazoizko segurtasun bat lortzea baliabide publikoen kudeaketa alderdi adierazgarri guztietan arau indardunen arabekoak izateaz. Fiskalizazio bat egiteko, aplikatu beharrekoak dira iritsitako konklusioei oinarri ematen dien auditoretza-ebidentzia lortzeko prozedurak. Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria jasotzen du ateratako ondorioei funtsa emateko.

Miguel Ángel Aurrecochea auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta jaulkitzen da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2024ko azaroaren 27an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

1. GEHIGARRIA. ARAU ESPARRUA

Fiskalizazio honi aplikatzekoa den araubide juridikoa batez ere honako hauek osatzen dute:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua, kontratazio publikoari buruzkoa.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.

2. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

2.1 INFORMAZIO-ITURRIAK ETA INTERKONEXIOA

Honako informazio-iturri hauek erabili dira lan hau egiteko:

- Nafarroako Kontratazio Ataria (NKA)
- Nafarroako Lizitazio Elektronikoaren Plataforma (aurrerantzean, PLENA)
- Kontratuen Erregistroa
- Extr@ espediente-kudeatzailea
- SAPGE21 sistema

Informazio horri dagokionez, alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

- NKA Kontratazio Publikorako Batzordearen mende dagoen Interneteko ataria, eta KFLren esparru subjektiboa osatzen duten entitateen lizitazioak iragartzeko bitarteko ofiziala da. KFLren 88. artikuluan ezartzen da zein diren derrigorrean argitaratu beharreko datuak. Txostenaren Eranskinean zehaztu dugu edukia.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak berak 2006an egindako garapena da, aurreko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeari, Kontratu Publikoei buruzkoari, euskarria emateko egina. Tresnak bialaera izan du, egindako arau-aldaketetara egokituz joateko.

- Nafarroako lizitazio elektronikoaren plataforma (PLENA) Nafarroako Kontratazio Publikorako Batzordearen mende dagoen web tresna bat da, eta KFLren mendeko entitateen lizitazioetan eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko bitarteko ofiziala da.

KPFLren 95. artikulua xedatzen duenaren arabera lizitatzen dutenek derrigorrean erabili behar dute, honako egoera hauetan izan ezik: munta txikiko kontratuen⁹ prozeduran, publiziterik gabeko prozedura negoziatuetan, duten izaeratik lizitatzailerak bakarrik egoten ahal denean, eta aurretiko lizitazio publikoa izaterik behar ez duten prozedura sinplifikatuetan.

- Kontratuen Erregistroa Kontratazio Publikorako Batzordearen mendeko Interneteko ataria da, eta adjudikatzaileek egindako kontratuak ezagutzeko modua ematen du.

- Extr@ plataforma espedienteen kudeaketarako sistema korporatiboa da. Gobernuaren 2010eko martxoaren 8ko Erabakiaren bidez, soluzio korporatibo gisa ezarri zen NFKAko prozedura administratiboaren kudeaketarako.

Kontratazio-espedienteen unitate kontratatzaile guztiak ez dira ari plataforma erabiltzen. Erabiltzen ez dutenek espedienteen kudeaketarako beste sistema batzuk erabiltzen dituzte.

⁹ Balio zenbatetsia 40.000 eurotik beherakoa duten obra-kontratuak eta balio zenbatetsia 15.000 eurotik beherakoa duten zerbitzu- eta hornidura-kontratuak .

- SAP plataformako ekonomia-/aurrekontu-/finantza-kudeaketarako sistema (GE21) lehen aipatutako informazio-iturriak egiaztatzeke sistema osagarri gisa erabili dugu lan honetan.

Informazio-iturri horien arteko interkonexioari dagokionez, honako hau adierazten dugu:

- Kontratazio-espeditente baten kodetzea ez dator bat NKAREN eta PLENAREN artean. Gainera, SAPGE21en beste kode bat esleitzen da. Ahulezia horiek kontratazio-prozesuaren trazabilitateari eragiten diote.

- 2013an, Web Service¹⁰ bat sortu zuten NKAN, zeinak modua ematen baitu kontratazio-prozesuarekin lotutako datuak beste aplikazio batzuetatik erregistratzeko, kontratazio-espeditenteen kudeatzailetik zehazki (Extr@ edo dagokion kudeatzailea). Alabaina, azpimarratzen dugu ezin dela hautesman NKAN erregistratutako datu ez-trinkoen jatorria, eta beraz, ezin dela sistema horretako arazoa konpondu.


- NKA eta PLENA lizitazio-fasean soilik daude interkonektatuta. Kontratuaren Erregistroak adjudikazio-fasean eta kontratuaren luzapenetan soilik du konexioa NKAREkin. Txosten honen hurrengo atalean zehaztuko ditugu interkonexio horien funtzionamendua eta ahulguneak.

- Munta txikiko araubide bereziaren bidez adjudikatzen diren kontratuak SAPGE21en erregistratzen dira. Kontuan hartu behar da horiek izapidetzeko nahikoa dela aurretiko kreditu-erreserba egitea eta dagokion faktura aurkeztea. Hortaz, prozedura hori ez da PLENAN kudeatzen.

Gero, kontratazio-organoetako unitate kudeatzaileek fitxategi espezifikoak sortzen dituzte, eta informazioa NKARA bidaltzen dute, adjudikazio horiek argitaratzeko kontratazio-organoaren eta kontratazailearen arabera multzokatuta, hiru hilean behin, KFLren 88. artikulua xedatzen duen eran.

¹⁰ Sarean konektatutako makinaren arteko interkomunikazio- eta interoperabilitate-bidea.

Aztertutako informazio-iturrien arteko konexioak identifikatu eta erlazionatu ditugu grafiko honetan:



Jarraian, NKA argitaratu beharreko informazioa zehaztuko dugu. Horretarako, behar bezala erregistratzeko eremu espezifikoak gaituta diseinatuta dago¹¹:

Aurre-informazioaren iragarkiak: KFLk xedatzen du kontratazio-organoek aurre-informazioaren iragarki bat argitaratu behar dutela, lizitatuko dituzten kontratuak ezagutzera emateko. Izapide hori betez proposamenak aurkezteko epeak laburtzen ahalko dira, baldin iragarki hori kontratuaren lizitazioari buruzko iragarkia argitaratu baino 12 hilabetetik 35 egunera lehenago igorri baldin bada.

Lizitazio-iragarkia: kontratazio-organoak, lizitazio-iragarkia erregistratzean, hori baino lehen aurre-informazioaren iragarkirik argitaratu den adierazten ahalko du nahi badu. NKA erregistratzen denean, zirriborro gisa gelditzen da, eta dagokion espedientea sortzen da PLENAn automatikoki. Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformara (PLACSP) ere igortzen da.

PLENAn, espedientearen informazioa bete behar da, eta behin betetakoa, lizitazioa argitaratzen da NKA eta PLENAn. Horren ondoren, PLENAn kudeatzen da adjudikazio-prozesu osoa (dokumentazioa eta eskaintzak aurkeztea, kontratazio-organoaren eta lizitatzaillearen arteko komunikazioak eta kontratazio-mahaiak egiten duen balorazioa). Prozesu osoa telematikoki egiten da, eta beraz, lizitazio elektronikorako tresna bakarra da¹².

Lizitazio-deialdirik gabeko adjudikazio-prozedura irekiak, sinplifikatuak eta negoziatuak ez dute lizitazio-iragarki publikorik behar, beren prozedura-izaeratik beragatik. Edonola ere, kasu batzuetan, lizitazio-iragarkia betetzen da NKA, eta espedientea PLENAn, PLENAn lizitatzaillearekin harremanetan egoteko ematen duen aukera baliatzeko.

Adjudikazio-iragarkia: behin kontratua adjudikatu denean, kontratazio-organoak dagokion adjudikazio-iragarkia erregistratzen eta argitaratzen du, batzuetan eskuz, NKA. Badago aukera adjudikazio-iragarkiaren alta adjudikatu gabeko lizitazio-iragarki batetik egiteko, eta horrela, ez da beharrezkoa zenbait datu adieraztea, adjudikazioa lizitazio horrekin lotuta gelditzen baita.

Aldaketa-iragarkia: adjudikatutako kontratuan aldaketaren bat egiten bada, NKA argitaratu behar da aldaketa.

Azpimarratzen dugu kontratuetan aldaketak egitea Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegian kontratazio publikoaren alorreko errekurtsio berezia¹³ jartzea eragiten ahal duen kasuetako bat dela. Bistakoa denez, aurkaratze hori ezin da egin NKA argitaratu ez bada, eta beraz, interes zuzena edo legitimoa duen edozein pertsonak duen eskubidea mugatzen da.

Luzapen-iragarkia: kontratua luzatu egiten bada, kontratazioa egin duen kontratazio-organoak dagokion luzapen-iragarkia erregistratu behar du NKA.

Amaiera-iragarkia: kontratua amaitutakoan, kontratazio-organoak amaiera-iragarkia erregistratu eta argitaratu behar du. Argitaratu beharreko datuen edukia oso garrantzitsua da, jarraian adierazten den eran:

- Kontratuaren amaieran egindako likidazioaren zenbatekoa.
- Kontraturiko prestazioaren amaierako kostuak zenbateko adjudikatuaren aldean izandako desbiderapena.
- Kontratu-lagapenari eta azpikontratazioari buruzko informazioa, lagapen-hartzaileen edo azpikontratisten nortasuna zehaztuta, bai eta azpikontraturiko kontratu bakoitzaren zenbatekoa eta adjudikazio-prezioaren gainean egiten duen portzentajea ere.
- Prezio-berrikuspenari buruzko informazioa eta kontratisten ez-betetzeagatik ezarritako zigorrei buruzkoa.

¹¹ Eremuak: aurre-informazioaren iragarkiak, lizitazioa, adjudikazioak, aldatutako kontratuak, amaitutako kontratuak, luzatutako kontratuak.

¹² PLENAn eremu pribatu bat dago, zeinetan lizitatzaille bakoitzak soilik sartzen ahal diren, eta eremu publiko bat, zeinetan edozein interesdun sartzen ahal den espedienteen datuetara.

¹³ Errekurtsioa jartzeko aukera ematen dute lizitazioaren xede izan behar zutela irizten delako foru lege honetan agindutakoa hautsiz egiten diren kontratu-aldaketek, hasierako kontratuan aurreikusirik egon nahiz ez.

Suntsiarazitako kontratuen kasuan, aurreko apartatuetako informazio guztirako sarbidea gehitu behar da, eta horrez gain, suntsiarazpenaren arrazoiak eta ondorioak.


Jakinazten dugu ezen, NKAn adjudikazio-iragarkiekin gertatzen den eran, dagozkien kontratazio-organoetako erabiltzaileek erregistratzen dituztela aldatutako kontratuei, luzapenei, amaierari eta suntsiarazitako kontratuei dagozkien datuak.

Ez dago inolako kontrol automatikorik, eta ez da eskuz baliozkotzen gertakari horiek gertatzen diren unean informazioa NKAn sartzen dela egiaztatze aldera. Urritasun handiak hauteman ditugu azken hiru iragarki-motak betetzeari dagokionez.


Lehen aipatutako ahulgunea dela-eta, SAPGE21 kontabilitate- eta aurrekontu-sistema da amaitutako, aldatutako eta luzatutako kontratuei buruzko informazio fidagarria eskuratzeko modua ematen duen iturri bakarra, eta, bestelako aukera gisa, Extr@ espediente-kudeatzailea (edo beste kudeatzaile bat); hori horrela, azpimarratzen dugu kanpoko edozein erabiltzailek ezin duela informazioa zuzenean NKAtik eskuratu, eta kasu gehienetan, edozein kontraturen gauzatzearen trazabilitateari buruzko analisiak egitea eragozten du horrek.

2.2 DATU-ANALISIA

Honako eskema honetan, kontratazio publikoaren faseak laburbildu ditugu:



Gure lanaren norainokoaren esparruan, honako grafiko honetan jasotako ibilbidea egin dugu datuak lortzeko:



A. NKA-ko datuen analisia

Informazioa lizitazio-iragarkiaren argitaratze-dataren arabera lortuta, hauek dira emaitzak:

Aurre-informazioaren iragarkiak

KFLk iragarki horren argitalpena aurreikusten du, horren ondorio nagusia delarik ondorengo lizitazio-fasean proposamenak aurkezteko epeak murriztea.

Gure lanaren norainokoari dagokionez, ikusi dugu aurre-informazioaren 353 iragarki daudela, eta inguruabar esanguratsua iruditzen zaigu honako hau: iragarki horietako bakar batek ere ez du geroa-goko lizitazio-iragarkirik lotuta.

Horrek agerian uzten du ez direla lizitazio-iragarkiak aurre-informazioaren iragarkiarekin lotzen hori argitaratua izan denean. Hortaz, gure azterketaren ondorioetarako, iragarkiak ez lotze horrek mugatu egiten du datuen egiaztapen masiboa, aurre-informazioaren iragarkiek ahalbidetzen duten epe-murrizketa ondorengo lizitazioetan modu seguruan jasanda dagoen ala ez aztertzeko egiten litzatekeena.

Lizitazio- eta adjudikazio-iragarkiak

Egindako azterketarekin, egiaztatu dugu 1.295 lizitazio-iragarki daudela, eta horietatik, 1.112 adjudikazio-iragarki soilik daudela argitaratuta. 183 lizitazio-iragarkik ez duten dagokien adjudikazio-iragarkirik; honako arrazoi hauengatik gertatzen da hori:

- Lizitatu den kontratua adjudikatzeko dago oraindik.
- Kontratua adjudikatu da, baina ez da adjudikazio-iragarkia erregistratu. Lehen esan dugun eran, batzuetan, adjudikazio-iragarkia eskuz erregistratzen dute NKAn kontratazio-organoetako unitate kudeatzaileek, eta horrek agerian uzten du ez dela beti egiten.
- Adjudikazio-iragarkia erregistratu da, baina dagokion lizitazio-iragarkiari dagokiola adierazi gabe. Azterketa neketsuak eginda, jakin dugu soilik 37 kontratazio-espediente daudela egoera horretan.

Egin behar izan ditugun azterketei buruz, espedienteen trazabilitatean muga nabarmenak eragiten dituzten zenbait kontu aipatuko ditugu:

- a) Testu-bilaketak eginez egin dira kontrolak. Horri dagokionez, egiaztatu dugu datuak testu libreko eremuetan erregistratzen direla, eta ez dutela formatu estandarrik ezarrita; hori horrela, datuen identifikazioetan eta/edo izenetan akatsak egiteko probabilitatea handia da. Ez dagoenez zehaztuta nola bete behar den testu-formatuaren estandarra, informazio-bilaketan ahalgin handia egin behar da, eta nahi ez diren emaitzak ematen ditu modu nabarmenean.
- b) Edonola ere, espedientea kudeatzen duen erabiltzaileak izapide hori egiten duenean, ez da beti adierazten zer lizitazio-iragarkiri dagokion, aplikazioak hori ahalbidetzen baitu, baita prozedura irekian ere.
- c) Beste alde batetik, lehen esan dugun eran, espedienteen kodetzeari dagokionez, ez dago homogeneotasunik dauden informazio-iturrien artean¹⁴.

Hortaz, ahulgune nabaria dago NKAk eskaintzen duen informazioaren kalitatean, honako hauei dagokienez:

- Ez dira adjudikazio-iragarki guztiak argitaratzen.
- Lizitazio-iragarkien eta adjudikazio-iragarkien arteko trazabilitatea.

¹⁴ NKA, PLENA eta SAPGE21.

Kontratu-amaierako eta kontratu-aldaketako iragarkiak

NKAn argitaratutako 1.112 adjudikazio-iragarkietatik, ikusi dugu kontratu-amaierako 110 iragarki argitaratu direla, eta kontratu-aldaketako zazpi iragarki. 61 obra-kontratu aztertu ditugu, 2019ko eta 2020ko ekitaldietan lizitatuak eta adjudikatuak.

61 kontratu horietatik, jakin dugu bost kontraturen amaiera-iragarkiak argitaratu direla. SAPGE21 aurrekontu- eta kontabilitate-sistemako informaziora sartu gara, eta ikusi dugu NKAn amaiera-iragarkirik ez duten 56 kontratu adjudikatuetatik gutxienez 42 (ehuneko 75) amaituta daudela. Akats horren ondorioz, NKako *Indarrean diren kontratuak* atalean kontratuak modu okerrean ageri dira oraindik ere, eta horrek informazioa hutsaltzen du nabarmen.

Era berean, 42 kontratu horietatik, gutxienez zortzitan adjudikazio-zenbatekoaren ehuneko 10etik gorako likidazioa dago jasota. KFLren 144. artikularekin bat, aldaketa horiek kontratu-aldaketa eragin izanen lukete, baina NKAn ez dago jasota aldaketa horien iragarkirik.

NKak ezin ditu akats horiek bere kasa zuzendu, ez baitago horretarako diseinatuta. Kontratazio-organoena da datuen osotasuna eta kalitatea hobetzeko ardura nagusia; hori horrela, kalitate-kontrol egokiak ezarri behar dira legez exijitzen den informazioaren erregistrarako.

Ondare Zerbitzuak berak ere onartzen du egoera hori, NKako Gardentasuna atalean¹⁵, honako hau baitio espresuki: *“Informazio horren mugei dagokienez, nabarmentzekoa da kontratu publikoei buruzko informazioa argitaratzeko erantzukizuna erakunde kontratatzaile bakoitzari dagokiola. Erakunde guztiek ez dute prozesu hori automatizatuta, eta, beraz, kontratu batzuk ez dira erregistratu, edo akatsak izan ditzakete”*.

Lehen esandakoaz gain, lan hau egitean, bestelako inkoherentzia batzuk ere hauteman ditugu, eta, datuen esportazio masibo batean, ez digute uzten arazoizko segurtasunez ondorioztatzen datuen fidagarritasunari buruz. Honako hauek dira, besteak beste:

- Lizitazio-iragarkiak errepikatuta egoteko posibilitatea. Geroago dagokion adjudikazio-iragarkia argitaratzen denean, ez da errepikatutako lizitazio-iragarkietako bat baliogabetzen. Informazio horrek bizirik jarraitzen du, eta koherentzia baldintzatzen du egin nahi diren analisietan. Aplikazioari ez bazaio muga hori gehitzen, erantzukizuna erabiltzailearen esku gelditzen da, eta gerora aztertu egin beharko litzateke.
- Kontratuaren balio zenbatetsiaren zenbatekoaren eta kontratuak Europako atalasea gainditzen duen edo ez adierazten duen eremuaren artean inkoherentziak egoteko posibilitatea. Esportatu beharreko datuetan aukeratutako bilaketa-eremuaren arabera, informazioa desberdina izaten ahal da.
- Adjudikazio-iragarki berean enpresak ETetzat jotzeari edo ez jotzeari buruzko informazio inkoherentea egoteko posibilitatea.

Datu-kargarako mugarik ez izatea eta datu inkoherenteak erregistratzea eragozten duen kontrol automatizaturik ez egotea urritasun handiak dira, eta eragina dute plataformak informazio fidagarria emateko duen ahalmenean; hain zuzen ere, informazioan inkoherentziak eta erroreak ez prebenitzeko edo ez hautemateko probabilitatea handia da.

Agerian jarritako inkoherentziak eta ahulguneak kontuan hartuta, lizitazio-iragarkitik abiatuta¹⁶, alternatiba gisa, informazioaren fidagarritasuna aztertzen ahalegindu gara, adjudikazio-iragarkiaren argitalpen-datatik abiatuta.

Informazio-bilaketako irizpide horrekin, egiaztatu dugu 1.201 adjudikazio-iragarki eta 1.112 lizitazio-iragarki daudela; 89 kontratazio-espeditenteko aldea da hori. Bilaketa neketsuen bidez, lortu dugu 65 kontratazio-espeditente aurkitzea eta horietan adjudikazio-iragarkia aurretiko lizitazio-iragarkiarekin lotzea.

Ezin izan dugu lotura hori egin gainerako 24 espeditenteetan; dena den, horrek ez du esan nahi, inola ere, kontratu bat adjudikatu denik bere aurretiko lizitazioa egin gabe. Gertatzen dena da, sinpleki, plataformak modua ematen duela adjudikazio bat erregistratzeko haren aurretiko lizitazio-iragarkia

¹⁵ <https://portalcontratacion.navarra.es/eu/transparencia/aclaracion-de-los-datos>

¹⁶ III. puntuko *Helburuak eta norainokoa* paragrafoan ezarritako lanaren denbora-irismenaren irizpidea.

zein den adierazi gabe, eta horrek eragiten ditu horrelako akatsak eta disfuntzioak informazioan. Horregatik, eta, beste behin ere, kontrolik ez dagoenez, NKA ez da ari informazioa modu koherentean jasotzen, eta horrek berriz ere agerian uzten ditu kontratazio-espeditenteen trazabilitatearen mugak.

Laburbilduz, nahiz eta egiaztatu dugun KFLren 88. artikuluan eskatzen den informazio guztia jasotzeko moduan diseinatuta dagoela NKA, azpimarratzen dugu kontratazio-organismoek datuak eskuz kargatzeak eta kontrolik ez egoteak agerian uzten dutela ez dela bermatua izaten ari datuen osotasuna, araudian exijitutako gardentasun publikoaren printzipioa behar bezala betetzeko beharrezkoa dena.

B. PLENA-ko datuen analisia

PLENAko datuetan sartuta, behin Esparru Akordioetan oinarritutako kontratuen eta lizitazio-deialdirik gabe negoziatutako prozeduren eta prozedura sinplifikatuen datuak garbituta, 1.324 espediente identifikatu ditugu. 29 espedienteko aldea dago NKAn identifikatutako 1.295 lizitazio-iragarkiekin alderatuta, aurreko paragrafoan aipatutako irizpideetatik lehenaren arabera aztertzen baditugu datuak.

Alabaina, nabarmendu nahi dugu 627 espediente “Ebaluazioa” egoeran ageri direla¹⁷. Espediente bati amaiera¹⁸ ematea erabiltzaileak egin beharreko lana da; hau da, PLENAk ez die automatikoki amaiera ematen espedienteei, eta ez du hori egitera behartzen, eta ez du inolako abisurik edo ondorengo alarrik ematen; hortaz, erabiltzaileak du espedienteari amaiera emateko ardura.

Fase honetan, sortutako zalantzen aurrean, bi gai aztertu ditugu:

- Argitaratu al da NKAn adjudikatutako espedienterik, PLENAn amaitu gabeko gisa jasota dagoenik?

Ikusi dugu 627 espediente ageri direla “Ebaluazioa” fasean; horien artetik:

- 125 espedientetan, ez dago adjudikazio-iragarkirik NKAn (edo, behizat, ez da erregistratu espedienteari egokitutako zenbakiarekin).
- Gainerako 502 espedienteetan, badaude dagozkien adjudikazio-iragarkiak; horrek esan nahi du amaitutako espediente gisa agertu beharko luketela PLENAn.

- Ba al dago PLENAn amaitutako gisa ageri den espedienteren bat, NKAn haren adjudikazioa jaso gabe?

Ikusi dugu 640 espediente daudela “Amaitua” egoeran; horietatik, 571 espedientetan jasota dago adjudikazio-iragarkia NKAn, eta 69tan, berriz, ez dago horrelako iragarkirik (ez espediente-kode berekin behintzat).

C. Kontratuen Erregistroko datuen analisia

NKako adjudikazio-iragarkien eta Kontratuen Erregistrokoen artean datu-koherentziak egon behar du, bete gabeko gisa aitortu diren adjudikazioetan izan ezik, informazioa automatikoki transferitzen baita dagokion interfazearen bidez. NKAn adjudikazio-iragarkia badago, kontratua egonen da Kontratuen Erregistroan. Hortaz, ulertzen dugu Kontratuen Erregistroan ahulgune deribatu bat dagoela: hau da, NKAn ez badaude adjudikazio-iragarki guztiak argitaratuta, Kontratuen Erregistroko informazioa ez da osoa.

Informazio horri buruz, Ondare Zerbitzuak berak honako hau dio Nafarroako Kontu Orokorretan sartzen diren urteko kontratazio-memoretan:

“Baliteke datuetan hutsuneak eta akatsak egotea, datuak Kontratuen Erregistroa bidaltzeko ardura entitate kontratatzaile bakoitzari dagokiolako”.

¹⁷ PLENAn, “Ebaluazioa” egoerak esan nahi du espedientea irekita dagoela; hau da, oraindik ez dela adjudikatu.

¹⁸ PLENAn, “Amaiera” egoerak esan nahi du espedientea amaitu dela kontratua adjudikatuta.

Laburbilduz, NKAn eta PLENAn jasotako informazioa aztertu ostean, honako urritasun hauek hauteman ditugu:

- Lehenagotik aurre-informazioaren iragarki bat duen lizitazio-iragarki bat betetzen denean, kasu bakar batean ere ez da adierazi iragarki horien arteko lotura.
- Batzuetan ez da argitaratzen adjudikazio-iragarkia, eta beste batzuetan, argitaratzen da, baina zer lizitazio-iragarkiri dagokion adierazi gabe.
- PLENAn, berez bukatuta dauden baina “Ebaluazioa” egoeran ageri diren espediente ugari daude.
- NKAn, gehienetan ez dira argitaratzen kontratuen amaiera-kontratuak; antzera gertatzen da kontratu-aldaketekin ere.

Txosten honen III. apartatuan (helburuak, norainokoa eta mugak) adierazi ditugun mugak kontuan hartuta, iruditzen zaigu informazioaren tratamendu masiboan ezin dela lortu behar besteko arrazoizko segurtasuna ematen duen konfiantzarik, honako hauek egiteko modua emanen ligukeenik:

- Kontratazio-espedienteen bolumen erreala zehazki kuantifikatzea.
- Kontratazio-espedienteen trazabilitate fidagarria eta segurua zehaztea.

2.3 NKA-REN DATU IREKIAK

Funtsezkoa da azpimarratzea kontratazioarekin lotutako datuek garrantzi handia dutela, horiek informazio-teknologiaren bidez masiboki ustiatzeko. Datuen analisi masiboek honako hauetarako balio dute:

- Kontratazio-organismoek egoerak aztertzeko eta erabakiak hartzeko.
- Barneko zein kanpoko kontrol-organismoek arrisku-arloak identifikatzeko, eta fiskalizazioa kontratazio publikoaren alderdi erabakigarrietara bideratzen laguntzeko.
- Kanpoko edozein erabiltzailerik informazioa lortzeko eta analisiak egiteko modua emateko.

NKAn argitaratzen diren iragarkien diseinua datuak sartzeko sistema dual honen gainean eratu da:

- Alde batetik, datu egituratuak daude, zuzenean esportatzen ahal direnak (beraz, multzokatzen eta aztertzen ahal dira).
- Beste alde batetik, egituratu gabeko beste datu batzuk daude; horiek pdf formatuko dokumentu digitalizatuta jasota daude, eta NKAn eranskin gisa sartuta daude. Edozein lizitatzailerik eskuratzen ahal ditu, nagusiki administrazio-klausula partikularren orriak eta zehaztapen teknikoak; hain zuzen ere, hor egoten da kontratazio publikoaren funtsezko informazioa.
- Kontratazio-mahaien aktak ere adjudikazio-iragarkietan sartzen dira gero, .pdf formatu berean; lizitatzailerik emandako puntuazioak eta balorazioak jasotzen dira.

Ulertu behar da dokumentu bat (eta beraz, harekin lotutako dokumentuak) aplikazio informatiko ugarirentzat irakurgarria izan dadin, jasotzen dituen datu espezifiko guztiak erraz identifikatzeko, ezagutzeko eta ateratzeko modua ematen duen fitxategi-formatu egituratua izan behar duela. Informazioa modu egituratuan biltzea funtsezkoa da datuen kalitate hobea lortzeko, eta hori behar-beharrezkoa da datuen analisi fidagarria egiteko, baina gaur egungo iragarkiekin ezin da hori egin.

2.4 NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ESTRATEGIA DIGITALA

Nafarroako Gobernuak Nafarroako 2013-2016 aldirako Estrategia Digitala abiarazi zuen 2013an, *Europako Agenda Digitala 2020*-en proposatutako erronken lorpenerantz bideratzeko Nafarroa, eta Foru Komunitatea Informazioaren Gizartean osoki sartzeko prozesua burutzeko.

2030 Nafarroako Estrategia Digital berria (aurrerantzean, 2030NED), Telekomunikazioetako eta Digitalizazio Zuzendaritza Nagusiak landua, Europar Batasunak finkatutako politikekin eta lehentasunekin lerrokatuta dago, eta 2030NEDen helburuen artean, honako hauek nabarmentzen ditugu, aipatutako dokumentuan jasota dauden eran:

- *“Datuetan oinarritutako erabakiak.*
- *Datuak adimenez hornitzea, portaera-patroiak detektatze aldera.*
- *Datuen estrategia, informazioa behar bezala antolatuz eta kudeatuz”.*

Kontratazio publikoko informazioaren potentzial osoa baliatzeko, ezinbestekoak dira datu-sarbideak eta horiek teknologia berrien bidez aztertzeko ahalmena; hortaz, kontratazio publikoa lehentasunez sustatu behar da aipatutako estrategia horretan, baliabide ugari bideratzen direlako eta eragin handia duelako. Bestela, agerikoa da kontratazio publikoari buruzko datu isolatu ugari daudela, baina, oraingoz, horien erabilgarritasuna erlatiboa edo urria da, gure iritziz, kontratazio-organismoentzat, barne- eta kanpo-kontrolako organismoentzat, operadore pribatuentzat eta baita kanpoko edozein erabiltzailerentzat ere.

2.5 MUNTA TXIKIKO KONTRATAZIOAREN ARAUBIDE BEREZIA

Munta txikiko kontratazioaren araubide berezia aplikatzen zaie BEZik gabeko balio zenbatetsia 40.000 eurotik beherakoa duten obra-kontratuei eta balio zenbatetsia 15.000 eurotik beherakoa duten zerbitzu- eta hornidura-kontratuei.

Kontratazio-prozedura sinplea eta arina da; kontratuaren zenbatekoaren arabera, araudiak ahalbidetzen du kontratu bat zuzenean enpresari edo profesional bati adjudikatzea, adjudikazioduna kontratua betetzeko gainerakoak baino egokiagoa dela egiaztatze aldera gutxieneko eskaintza-kopuru bat eskatzera behartuta egon gabe.

KFLren 102. artikulua honako hau ezartzen du munta txikiko kontratazio araubide bereziari dagokion gastuen publikitateari dagokionez: *“Kontratazio organo bakoitzak argitaratuko ditu Nafarroako Kontratazioaren Atarian, hiru hilabetean behin eta enpresa edo profesional bakoitzari dagokionak bilduta, ekitaldi horretan zenbateko txikiko kontratuak adjudikatzeko araubide bereziaren bidez egindako adjudikazioak”.*

Era berean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 23. artikuluko g letrak jasotzen du Nafarroako Kontratazioaren Atarian honako hau jaso beharko dela: *“Garrantzi txikiagoko kontratuen zerrenda, hiruhilekoa gutxienez, zehaztuta, organo edo entitateen arabera, haien xedea, zenbatekoa, iraupena eta zer portzentaje egiten duten adjudikatutako kontratu guztiekin alderatuta”.*

Alabaina, lehen aipatu bezala NKA argitaratzeko derrigortasunaz gainera, aplikatzekoak zaizkio KFLren beste zenbait agindu ere; batez ere, kontratuaren xedea ez zatikatzeari dagokiona. Hain zuzen ere, eskakizun hori da munta txikiko kontratuen araubideko kontratazioaren arrisku nagusia.

2021eko irailean, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zenbait jarraibide idatzi zituen, eta kontabilitate-zentro guztietara igorri, kontrataziotik sortutako kontratu eta/edo egoera-mota guztien kontabilizazioari eta identifikazioari buruz¹⁹, munta txikiko kontratuen araubide berezikoena barne, gero NKA argitaratu zitezten.

Hiru hilean behingo argitalpena prozedura zentralizatu baten bidez egiten da. Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren Kontabilitate Zerbitzuak ematen dio hasiera prozedurari, kodetze berezi bat duten mota horretako kontratuekin lotutako aurrekontu-betebeharren kontabilitate-informazio erregistratua ateraz aldizka; zehazki, kode hauek dituztenenak:

¹⁹ CA100: Obra kontratua, CA200: Hornidura-kontratua, CA300: Laguntza-kontratua, CA500: Beste administrazio-kontratu batzuk, CA600: Herri-lanen emakida, CA601: Zerbitzuen emakida kontratua, CA700: Esparru-akordioa, CA800: Erosketa-sistema dinamikoa, CA900: Munta txikiko obra-kontratuak, CA901: Hornidura eta zerbitzuen munta txikiko kontratuak, CE100: Obren enkarguak, CE101: Hornidura eta zerbitzuen enkarguak, CN100: Kontraturik ez, CP100: Ondare-kontratua, CP200: Bestelako kontratu pribatuak.

- CA900 *kodea*: Munta txikiko obra-kontratua. 48.400 (BEZa barne) baino zenbateko txikiagoa duten fakturei dagokie.
- CA901 *kodea*: Hornidura eta zerbitzuen munta txikiko kontratua. 18.150 (BEZa barne) baino zenbateko txikiagoa duten fakturei dagokie.

Informazioa hiru hilean behin ateratzen da, eta iragazi egiten da, 100 eurotik beherako zenbatekoa duten gastuak kentzeko. Gero, dagozkien idazkaritza tekniko nagusietara igortzen da, berrius eta argitara dezaten.

NKAN argitaratzen den informazioak honako egitura hau du:

Hirugarrenaren izena	Zenbateko metatua	Zenbatekoa BEZa barne	Dokumentu-aren data	Kontabilitatearen data	Tes-tua	Aldizka-kotasuna	Guztizko-aren gaineko %
----------------------	-------------------	-----------------------	---------------------	------------------------	---------	------------------	-------------------------

Informazioa .pdf formatuan argitaratzen da gehienbat, baina excel formatuko argitalpen batzuk ere ikusi ditugu. Lehen esan dugun eran, azpimarratzen dugu .pdf formatuak datuak esportatzea eta tratatzea zailtzen duela.

Ea munta txikiko kontratu guztiak NKAN argitaratzen diren egiaztatzeko modu bakarra da informazioa SAPGE21ekin kontrastatzea. 2022ko eta 2023ko ekitaldiekin soilik egin ahal izan dugu prozesu hori, lehenago horrelako kontratuak ez baitzeuden ez identifikatuta ez kodetuta SAPGE21en.

Kodetze-sistema horren garrantzia azpimarratzen dugu; izan ere, gertatzen ahal da kontratu batzuk bat etortzea lehen aipatutako munta txikiko kontratueterako aurreikusitako atalase ekonomikoekin, baina, aldiz, behar bezala adjudikatutako kontratuetatik sortutako betebeharrak izatea –adibidez, esparru-akordio batetik sortutakoak–. Hori horrela, aurrekontu-informazioaren eta NKAKo argitalpenen datu masiboen kontraste hutsak ondorio okerrak ateratzera emanen gintuzke.

Hala eta guztiz ere, kodetzea departamentu eta erakunde autonomo guztietan egiten da, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan (aurrerantzean, O-NOZ) izan ezik, haren MM moduluak²⁰ ez baitu modurik ematen instrukzioaren araberako kontratu-kodearen eremurik erregistratzeko.

Egin dugun azterketan, honako hauek egiaztatu ditugu:

- Departamentu guztien informazioa hiru hilean behin argitaratzeko betebeharra 2022tik aurrera betetzen da, koadro honetan ikusten den eran:

	2019	2020	2021	2022	2023
Lau hiruhilekoak argitaratzen dituzten departamentuen kop.*	2	4	3	13	13
Departamentuak, guztira	13	13	13	13	13
Betetzea (%)	% 15	% 31	% 23	% 100	% 100

*Ez dira kontuan hartu NKAN atal edo zerbitzu batzuen kontratuak bakarrik argitaratu dituzten zenbait departamentu.

²⁰ Osasun Departamentuaren erosketak eta biltegiak kudeatzeko SAP sistema esklusiboa (MM moduluak).

- Honako koadro hauetan jaso ditugu munta txikiko kontratazioaren bolumena, haren garrantzia erlatiboa eta NKAN argitaratutako zenbatekoen eta kodetutako zenbatekoen arteko aldeak:

2022ko ekitaldia

Departamentuak	Gastua, guztira 2. eta 6. kapitu- luak	NKAN argitaratutako munta txikiko kontrata- zioa, guztira	Munta txi- kiko kontra- tazioaren %	C900 eta C901, guztira, 2. eta 6. kapituluetan	Aldeak	%
0 Lehendakaritza, Berdintasuna, Funtzio Publikoa eta Barnea	31.045.310	10.101.750	33	9.109.938	991.812	11
1 Ekonomia eta Ogasuna	25.311.481	1.105.861	4	1.061.482	44.379	4
2 Lurralde Kohesioa	172.368.549	1.693.029	1	1.690.564	2.465	0
3 Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoak	3.656.201	890.163	24	902.906	-12.743	-1
4 Hezkuntza	70.941.001	9.382.675	13	9.278.825	103.849	1
5 Osasuna	451.211.218	4.769.499	1	5.778.195	1.008.695	-17
7 Landa Garapena eta Ingurumena	25.637.920	4.955.950	19	4.792.392	163.558	3
8 Garapen Ekonomikoa	12.620.376	5.532.785	44	5.231.888	300.896	6
9 Eskubide Sozialak	168.398.813	5.766.228	3	6.579.549	-813.321	-12
A Kultura eta Kirola	14.104.514	5.216.752	37	5.065.869	150.883	3
B Herritarrekiko Harremanak	3.619.344	1.584.496	44	1.639.782	-55.286	-3
F Migrazio Politikak eta Justizia	11.884.217	1.869.924	16	1.822.487	47.437	3
G Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	34.775.784	1.311.854	4	1.279.300	32.554	3
Guztira	1.025.574.729	54.180.964	5	54.233.177	52.213	0

2023ko ekitaldia

Departamentuak ²¹	2. eta 6. kapi- tulueta- gastua, guztira	NKAN argitaratu- tako munta txi- kiko kontrata- zioa, guztira	Munta txikiko kontratazioa- ren %	C900 eta C901, guztira, 2. eta 6. kapituluetan	Aldeak	%
0 Lehendakaritza eta Berdintasuna	37.613.789	8.539.166	23	8.493.440	45.726	1
1 Ekonomia eta Ogasuna	23.085.706	1.099.049	5	1.093.154	5.895	1
2 Lurralde Kohesioa	172.756.866	1.453.923	1	1.352.290	101.633	8
3 Etxebizitza, Gazteria eta Migrazio Politi- kako	6.349.546	1.002.777	16	992.720	10.057	1
4 Hezkuntza	81.444.584	9.949.427	12	9.929.986	19.441	0
5 Osasuna	501.504.222	8.623.229	2	7.475.640	1.147.590	5
7 Landa Garapena eta Ingurumena	33.985.232	4.597.133	14	4.503.628	93.506	2
8 Industria eta Enpresen Trantsizio Ekolo- giko eta Digitala	13.969.508	5.195.904	37	5.247.270	51366	-1
9 Eskubide Sozialak, Ekonomia Soziala eta Enplegua	210.476.585	4.816.939	2	4.882.642	65703	-1
A Kultura, Kirola eta Turismoa	15.092.848	6.288.188	42	5.778.102	510.086	9
B Memoria eta Bizikidetzatza, Kanpo Ekintza eta Euskara	4.913.320	1.298.925	26	1.353.232	54307	-4
F Barne-gaiak, Funtzio Publikoa eta Justizia	13.235.705	1.614.674	12	1.592.937	21.738	1
G Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	43.622.372	926.718	2	927.703	986	0
Guztira	1.158.050.282	55.406.052	5	53.622.744	1.783.308	3

²¹ Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren abuztuaren 17ko 10/2023 Foru Dekretuaren, Nafarroako Foru Komunitateko departamentu egitura berria onetsi zuenaren, arabera egitura.

Ikusi dugu munta txikiko kontratuen araubide berezia, gure ustez oro har garrantzitsua ez bada ere (ehuneko bost), badela garrantzitsua departamentu jakinetan, koadro honetan ikusten den eran:

Departamentuak ²²	2022 Munta txikiko kontra- tazioaren %	2023 Munta txikiko kontratazioaren %
0 Lehendakaritza eta Berdintasuna	33	23
8 Industria eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitala	44	37
A Kultura, Kirola eta Turismoa	37	42
B Memoria eta Bizikidetzeta, Kanpo Ekintza eta Euskara	44	26

• Honako desberdintasun-mota hauek topatu ditugu, nagusiki, NKAn argitaratutakoaren eta SAPGE21en kodetutako datuen artean:

- Zenbait kontratu NKAn argitaratuta daude, baina ez daude kodetuta SAPGE21en.
- Zenbait kontratu kodetuta daude SAPGE21en, baina ez daude NKAn argitaratuta.
- Zenbait faktura munta txikiko kontratu gisa kodetuta daude aipatutako kontratuen muga ekonomikoa gainditzen badute ere.
- Zenbait faktura munta txikiko kontratu gisa oker kodetuta daude.
- Zenbait faktura munta txikiko kontratu gisa kodetuta eta transferentzien kapitulura egotzita daude.
- Zenbait kontabilitate-ohar ez daude kodetuta kontabilitate-jarraibideko kode-zerrendaren arabera; hori horrela, egindako honen moduko datu-analisi masibo batean, ezin dugu jakin munta txikiko kontratua ala bestelakoa den. Egoera horretan dago Osasun Departamentua, zeinetan zenbatekoa ehuneko 89koa izan baitzen 2022an, eta ehuneko 85ekoa 2023an. Hain zuzen ere, departamentu horren 2022ko eta 2023ko kodetu gabeko zenbatekoak Nafarroako Gobernuaren kodetu gabeko zenbateko osoaren ehuneko 96 egiten du.

• Esandakoagatik guztiagatik, eta nahiz eta iruditzen zaigun SAPGE21eko kodetze-mekanismo hori sistema beharrezkoa, egokia eta arrazoizkoa dela NKako informazioaren osotasuna bermatze aldera:

- Egoki eta zuzen ez kodetzearekin lotutako arrisku bat dago, eta minimizatu egin behar da, kodetzearekin lotutako gorabeherak eragiten dutelako edo eragiten ahal dutelako KFLk kontratu horietarako eskatutako argitalpenik ez egotea.
- SAPGE 21en eta NKAREN artean datuak automatikoki transmititzeko interfaze bat egon beharko litza-teke, prozesuen eskuzko kudeaketa ekiditeko.

• Honako arrisku-zantzu hauek hauteman ditugu kontratu-zatikatzeari dagokionez, kontuan hartuta analisisia datu masiboen bidez egiten dela:

²² Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren abuztuaren 17ko 10/2023 Foru Dekretuaren arabera egitura. Konparazio honetan, eskumen-eremuak ez datoz guztiz bat 2022ko egiturarekin eta aipatutako foru-dekretuan onetsi zenarekin.

Lehenengoa.- Izaera horizontaleko zerbitzu jakinak, zeinetan hornitzaile berak hornitzen dituen eta egiten dizkien fakturak ia departamentu guztiei. Honako hauek izan ziren 2022-2023 aldiko datuak eta bilakaera:

Hornitzaile berarekin kontratatutako zerbitzua/hornidura	2022 Munta txikiko kontratazioaren zenbatekoa	2023 Munta txikiko kontratazioaren zenbatekoa	Guztira * 2022-2023
Informatikako kontsumigarriak	539.129	620.926	1.160.055
Datu-zentroetako zerbitzuak	218.485	241.905	460.390
Bulego-materiala	193.868	211.914	405.782
Inprimagailu-zerbitzuak	215.760	84.923	300.683
Bidaia-agentzia	128.378	150.975	279.353
Aholkularitza teknologikoa	176.201	222.096	398.297

Zenbateko horietan ez daude sartuta 2019-2021 aldiko fakturazio-datuak; hortaz, hornitzaile berarekin egindako munta txikiko kontratazioaren zenbateko ekonomikoa nabarmen handiagoa izanen litzateke.

Bigarrena.- Hornitzaile jakinetan, ikusten da zenbait fakturaren zenbatekoak munta txikiko araubide berezian onartzen denetik oso gertu daudela edo gaintu egiten dutela.

- Bukatzeko, azpimarratzen dugu Kontu-hartzailatza Zuzendaritza Nagusiaren mendeko Finantza Kontrol Iraunkorrerako eta Auditoretzako Zerbitzuak, 2019az geroztik, bere finantza-kontrolerako urteko txostenetan ohartarazi duela kontratazio-araubide berezi hori bidegabeki erabiltzen dela departamentu eta prestazio jakinetan.

ERANSKINA. NAFARROAKO KONTRATAZIO ATARIAN DERRIGORREAN ARGITARATU BEHARREKO DATUAK

KFLren 88. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako informazio honek agertu behar du Nafarroako Kontratazio Atarian:

a) **Aurreikusitako lizitazioei buruzko informazioa**. Aldez aurreko informazioa jasotzen duten iragarkiek honako informazio hau jasoko dute, gutxienez ere:

1. Deialdia egin duen entitatea.
2. Kontratazio-modalitatea.
3. Kontratu-mota.
4. Kontratazio-prozedura.
5. Xedearen deskribapena.
6. Balio zenbatetsia.
7. Aurreikusitako lizitazio-data.
8. CPV kodea.
9. Kasua bada, iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera igorri zeneko data.

b) **Abian dauden lizitazioei buruzko informazioa**, aldez aurreko informazioa jasotzen duen iragarkirako sarbidearekin eta, gainera, honako informazio honekin:

1. Artikulu honen 2. apartatuko b) letran aipaturiko informazio guztia.
2. Kontratazio-organoa.
3. Adjudikazio irizpideak: batez ere, prezioa eta gizarte, ingurumen, genero eta berrikuntzaren arloetako irizpideak.
4. Lizitazio-prezioa.
5. Eskaintzak edo eskaerak aurkezteko epea.
6. Eskaintzak aurkezteko tokia.
7. Kontratazio Atarian zer datatan argitaratu den.
8. Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean zer datatan argitaratu den.
9. Kontratuaren exekuzio-epea edo iraupena.
10. Epe-luzapenatarako aukerak.
11. Kontratuaren pleguen eta, egonez gero, gainerako dokumentazio osagarriaren eskuragarritasun erabatekoa.
12. Kontratazio-mahaien osaera.

c) *Adjudikatu gabe gelditu diren kontratuak eta deuseztaturiko lizitazio eta adjudikazioak*, emaitza horietara eraman duten arrazoiak adierazita.

d) *Adjudikatutako kontratuak*, lizitazioari dagokion informazioa eskuragarri jarriarik, bai eta honako hauek ere:

1. Lizitatzaille-kopurua.
2. Parte hartzen duten enpresa txiki eta ertainen kopurua.
3. Lizitatzailleen izena eta IFZ.
4. Adjudikazio-hartzailearen izena eta IFZ.

5. Adjudikazioaren zenbatekoa.
6. Adjudikazioaren data.
7. Adjudikazioaren argitaratze-eguna eta kontratazio-mahaien aktak, zeinetan nahitaez jasota ageri beharko baita eskaintza ekonomikoen eta proposamen teknikoen konparazio-koadroa, hai-etako bakoitzak irizpide bakoitzagatik lorturiko puntuazioekin, bai eta arrazoiketaren laburpen bat ere.
8. Kontratu-formalizazioaren eguna.

e) *Epe-luzapena izan duten kontratuak*, aurreko apartatuetako informazioa eskuragarri jarririk eta, bereziki, epe-luzapenaren iraupena.

f) *Aldatutako kontratuak*, adjudikazioari dagokion informazioa eskuragarri jarririk, bai eta:

1. Aldaketa-mota.
2. Aldaketaren zenbatekoa.
3. Aldaketak egiten duen portzentajea, adjudikazioaren zenbatekoarekiko.
4. Aldaketa egin deneko data.
5. Aldaketaren arrazoia eta justifikazioa.

g) *Suntsiarazitako kontratuak*, aurreko apartatuetako informazio guztia eskuragarri jarririk eta, horrez gain, suntsiarazpenen arrazoiak eta ondorioak.

h) *Amaitutako kontratuak*, aurreko apartatuetako informazioa eskuragarri jarririk eta, horrez gain, honakoa:

1. Kontratuaren amaieran egindako likidazioaren zenbatekoa.
2. Kontraturiko prestazioaren amaierako kostuak zenbateko adjudikatuaren aldean izandako desbiderapena.
3. Kontratu-lagapenari eta azpikontratazioari buruzko informazioa, lagapen-hartzaileen edo azpi-kontratisten nortasuna zehaztuta, bai eta azpikontraturiko kontratu bakoitzaren zenbatekoa eta adjudikazio-prezioaren gainean egiten duen portzentajea ere.
4. Prezio-berrikuspenari buruzko informazioa eta kontratisten ez-betetzeagatik ezarritako zigorre buruzkoa.

i) Entitate bakoitzak adjudikaturiko *munta txikiko kontratuei buruzko informazioa, hiru hilean behin eguneratua*, adjudikazio-hartzailea nor den eta adjudikazioaren zenbatekoa zein izan den zehaztuta.

j) Datu estatistikoak, kontratazio-organoen arabera, urtealdika zehazten dutenak foru lege honetan aurreikusitako prozedura eta moduen bitartez adjudikatutako kontratuek aurrekontu-bolumenaren ikuspegitik egiten duten portzentajea.

k) Maiz egiten diren galderei buruzko informazioa eta kontratuen edukia argitzeko azalpenak.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK*Nafarroako Gobernua**Ekonomia eta Ogasun Departamentua**Idazkaritza tekniko nagusia*

“Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontratazio publikoaren arrisku-analisia (2019-2023)” buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostena onesten duen Kontuen Ganberako lehendakariaren Ebazpenari erantzunez, non fiskalizatutako erakundeari helarazten baitzitzaion alegazioak egin zitzan, Aurrekontuen eta Ondarearen zuzendari nagusiak aurkeztutako alegazioen berri ematen dizut:

10. orrialdea

1. Behin-behineko txostena: *Trazabilitatea egon behar da kontratazio-espediente guzti-guztietako lizitazio-, adjudikazio- eta amaiera-prozesuan.*
 - Iruzkina: trazabilitate hori badago, iragarkiak elkarrekin lotzen direlako, eta *sine qua non* baldintza bat da sistemak behar bezala funtziona dezan. Beste kontu bat da egungo trazabilitate-mekanismoa ez izatea egokia txostenaren lan-xedea bitarteko automatikoen bidez lantzeko. Egoera horren arrazoia da Nafarroako Foru Komunitateko kontratazio publikoko *suite*-a haziz eta garatuz joan dela 2006an jaio zenez geroztik (aitzindaria da estatuan), eta funtzionalitate berriak gehitu zaizkiola beste tresna batzuekin interkonektatuz, eta tresna horiek bestelako kodetze-sistemak dituztela.

11. orrialdea

2. Behin-behineko txostena: *Horrez gainera, ez dago derrigorrean erregistratu beharreko informazioa ziurtatzeko eta baliozkotzeko kontrolik; bi alderdi horiek agerian utzi dute atari horretako informazioa osatugabea dela.*
 - Iruzkina: “*ez dago (...) kontrolik*” adierazpen orokorrak ulertzea ematen ahal du Kontratazio Atariak ez duela inolako kontrolik, eta baieztapen hori ez da egia, inprimakietako eremu askotan formatua, bai eta edukia ere, baliozkotu egin behar baitira nahitaez argitalpena egin ahal izateko. Hortaz, esaldian ñabarduraren bat sartzea komeni da, NKAREN errealitatera hobeki egokitu dadin. Neurri berean, “*osatugabea dela*” baieztapenak ulertarazten ahal du datu osatugabeak egotea NKAREN berezko ezaugarria dela, eta ez informazioa betetzeko moduarekin lotua; beraz, proposatzen dugu adierazpen horren ordean honako honen antzekoren bat jartzea: “*bi alderdi horiek agerian utzi dute inprimakiak ez direla beti behar bezala betetzen*”.
3. Behin-behineko txostena: *kontratazio-espedienteen kodetze-sistemak ez dira berdinak NKAN, lizitazio elektronikorako plataforman (PLENA), Extr@ expediente-kudeatzailean eta SAPGE21 ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketako sisteman, eta horrek kontratazio-espedienteen trazabilitatea mugatzen du.*

- Iruzkina: lehen oharrari buruz esandakoa errepikatzen dugu.

4.Behin-behineko txostena: *Gainera, iruditzen zaigu zatikatzeko-arriskuaren zantzuak daudela araubide berezi horren bidezko kontratazioan, batez ere Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekiko izaera horizontala eta zeharkakoa duten zerbitzu edo hornidura jakinetan, honako koadro honetan erakusten dugun eran: informatikako kontsumigarriak; datu-zentroetako zerbitzuak; bulegoko materiala; inprimagailu-zerbitzuak; bidaiaria-agentzia; aholkularitza teknologikoa.*

- Iruzkina. Abiapuntu gisa, aipatutako kontratu-xede guztiak bi talde handitan banatzea komeni da, eta bi taldeak bereizita aztertzea. Alde batetik, hornidura-kontratuak egonen lirake (informatikako kontsumigarriak eta bulego-materiala), eta, beste batetik, zerbitzu-kontratuak (datu-zentroetako zerbitzuak, inprimagailu-zerbitzuak, bidaiaria-agentziak eta aholkularitza teknologikoa).

Kontratu Publikoen Foru Legean aurreikusitakoaren arabera (8. Xedapen Gehigarria), NFKko Administrazioan, berez, Departamentu bakoitzaren titular den pertsonari dagokio kontratuak egiteko eskumena, munta txikiko gastuak izan ezik, horiek zuzendaritza nagusien edo zerbitzu-zuzendaritzen esku uzten baitira. Arau orokor horretatik kanpo utzi behar dira modu zentralizatuan artatzen diren kontratu-xedeak; hori gertatzen da, esaterako, informatikako kontsumigarriekin eta bulego-materialarekin, artatze zentralizatuko gisa aitortuak izan baitziren ekainaren 25eko 217/2004 Foru Aginduaren, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarenaren, 1) apartatuan.

Esandakoa aplikatuz, Ondare Zerbitzuak une bakoitzean egoki irizten dituen tresnak erabiltzen ditu inpresio-kontsumigarrien eta bulego-materialaren kontratazioari lege-estaldura emateko. Ohituraz, esparru-akordioak izaten ziren tresna horiek. Dena den, egia da aztertutako bi urteetan, hain zuzen ere, kontratazioa ez zela egin esparru-akordioaren barruan, horien indarraldia amaituta zegoelako, eta, gainera, Covid-19 etaparen ostean lehentasunak ordenatu behar izan zirenez, eta mundu osoan prezioen bilakaerarekin lotutako arazoak, stock-hausturak eta abar egon zirenez, irtenbide berriak diseinatu behar izan dira, eta horrek kontratazio-tresna berrien ezarpena atzeratu du. Kontratazio-tresna horiek jada indarrean daude inpresio-paperrari dagokionez (sistema dinamikoa); inpresio-kontsumigarrien kasuan, amaitu da eskaintzak aurkezteko epea (esparru-akordioa), eta datozen hiletan abiaraziko da bulegoko material txikia. Laburbilduz, hautemandako baldintza hori egoera zehatz eta iragankor baten ondorio da, eta beraz, ez dago kontratu-zatikatzetik gertatzeko arriskurik.

Beste alde batetik, aipatutako zerbitzuen kontratazioa ez dago zentralizatuta, aholkularitza informatikoa izan ezik (aholkularitza teknologikoaren zati bat izaten ahal dira), abenduaren 17ko 255/2007 Foru Dekretuaren, Nafarroako Foru Administrazioaren eremuan laguntza kontratuak egiteko eskumenak berriz arautzen dituenaren, 3. artikulua bidez. Hortaz, Departamentu bakoitzeko titular diren pertsonak dute kontratu horiek egiteko eskumena, edo Departamentu bakoitzeko antolamendu arauetan zehaztutako pertsonak. Hori horrela, KPFLren 39.3 artikuluan debekatzen den “kontratu-zatikatzeko” kontzeptua aztertu beharren gaude, eta hori behar bezala ulertzeko, lege horren 42.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera interpretatu behar da:

3.Adjudikazio botere bat unitate funtzional berezietan osatua denean, banakako unitate funtzional guztietarako zenbatetsitako balio osoa hartuko da kontuan.

Aurrekoa gorabehera, unitate funtzional berezi bat modu autonomoan arduratzen bada bere kontra-

tazioaz edo kontratazioaren kategoria jakin batzuek, balioak kasuan kasuko unitatearen mailan kalkulatu daitezke.

Aurreko paragrafoan aipatzen den inguruabarra gertatzen dela ulertuko da unitate funtzional bereizi horrek berariazko finantzaketa eta eskumenak dituen kontratuaren adjudikazioari dagokionez.

Hortaz, kontratu-zatikatzea gertatzen ari dela jotzen ahalko da soilik kasu honetan: finantzaketa eta eskumena dituen unitate funtzional berean kontratu-xede berari dagozkion gastuak daudenean, eta gastu horien zenbatekoak KPFLren 81. artikuluan xedatutakoak baino handiagoak direnean.

Hori horrela, artikulua aipamena, “*Administrazioaren Departamentuekiko izaera horizontala eta zeharkakoa duten gastu*”-ei buruzkoa, gure iritziz ez da zatikatze-arriskuaren adierazle egokia.

14. orrialdea

5. Behin-behineko txostena: *Plataformak ez dezala modurik eman adjudikazio-iragarki bat erregistratzeko baldin eta lizitazio-iragarkirik adierazi ez bada.*

- Iruzkina: Batzuetan, muga hori ez da egokia Kontratazio Atarian modu zehatzean eta osoan jaso dadin kontratazio publikoaren alorrean eginiko gastua; izan ere, zenbait adjudikazio beste entitate batzuek lizitatutako kontratazio-tresna zentralizatuen bidez egiten dira (zehazki, Ogasun Ministerioaren Erosketa Zentralizatuko Sistema eta xede gisa farmazia-produktuak dituzten esparru-akordio batzuk). Hortaz, gomendioaren hedapena ez zaigu egokia iruditzen kontuan hartuta Kontratazio Atariak askotariko egoeren publizitate-tresna izan behar duela, hori baita bere xede nagusia KPFLren arabera.

6. Behin-behineko txostena: *Azter dadila ea erregistratutako informazioa zuzena den.*

- Iruzkina: behin-behineko txostenean bertan ezarritakoaren arabera, 15. orrialdean zehazki, kontratazio-organoen ardura da KPFLk ezarritako informazioa argitaratzea. Hortaz, iruditzen zaigu aipamen hori argitu egin beharko litzatekeela, eta “azter dadila”-ren ordean “kontratazio-organoez azter dezatela” jarri.

22. orrialdea

7. Behin-behineko txostena: *Ez dago inolako kontrol automatikorik eta ez da eskuz baliozkotzen gertakari horiek gertatzen diren unean informazioa NKAn sartzen dela egiaztatze aldera. Urritasun handiak hauteman ditugu azken hiru iragarki-motak betetzeari dagokionez.*

- Iruzkina: 7. iruzkinean adierazitakoarekin bat, kontratazio-organo edo -entitate bakoitzaren ardura da eskuz baliozkotzea; hortaz, idazketa argitzea proposatzen dugu, inguruabar hori aipatzeko. Hau jartzen ahal da, esate baterako: “*eta entitate kontratatzaileek ez dute eskuzko baliozkotzerik egiten*”.

25. orrialdea

8. Behin-behineko txostena: *Era berean, 42 kontratu horietatik, gutxienez zortzitan adjudikazio-*

zenbatekoaren ehuneko 10etik gorako likidazioa dago jasota. KFLren 144. artikularekin bat, aldaketa horiek kontratu-aldaketa eragin izanen lukete, baina NKAn ez dago jasota aldaketa horien iragarkirik.

- Iruzkina: gai horri dagokionez, esan behar da KPFLren 171. artikuluko aurreikuspena modu osagarrian aplikatzekoa dela; hau da, obra-kontratuetan, espedientea izapidetu beharrik izan gabe % 20ko kontratu-aldaketak egiteko aukera dago baldin eta ezarritako baldintzak betetzen badira eta unitate berrienak (kreditu orokorra % 10) eta neurketa-hazkunderenak (% 10) badira. Hortaz, baliteke baieztapen hori ez izatea aplikagarria aztertutako kontratu guztietan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Idazkaritza Tekniko Nagusia

Araubide Administrazioaren Atala

Javier Miqueleiz Garayoa

KONTUEN GANBERAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNA

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz, lan honen emaitzen berri eman zitzaion Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariari, Kontratazio Publikorako Batzordearen lehendakari den heinean, alegazioak aurkez zitzaizkion.

Aipatutako departamentuaren Idazkaritza Tekniko Nagusiak alegazioak aurkeztu ditu Kontuen Ganberak emandako epean. Behin-behineko txostenari gehitu zaizkio alegazioak –hazteko bat hartu da aintzat–, eta beraz, txostena behin betiko bihurtu da. Edonola ere, Ganbera honek honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditu:

-Lehenengo alegazioari dagokionez, lehenik, esan nahi dugu gure ustez informazioaren kudeaketako sistemetan exijitu beharreko lan-premisa bat dela, eta horregatik egin diogula erreferentzia lan-metodologiaren apartatuan. Bigarrenik, egindako lanetik ondorioztatzen da lizitazio-iragarkia eta adjudikazio-iragarkia elkarri lotzea posible dela, baina ez dela derrigorrezkoa, eta horrek esan nahi duela ez dela beti horrela egiten, eta trazabilitatea galtzen dela horren ondorioz.

Horregatik egin ditugu, besteak beste, honako gomendio hauek : *“Plataformak ez dezala modurik eman adjudikazio-iragarki bat erregistratzeko baldin eta lizitazio-iragarkirik adierazi ez bada”* eta *“Azter dadila ea erregistratutako informazioa zuzena den”*, baina bigarren hori kontratu-aldaketan eta kontratu-amaieran apartatuari dagokio.

-Bigarren eta hirugarren alegazioei dagokienez, adierazten dugu gure azterketaren norainokoaren mugak apartatuan jasota daudela.

Alabaina, bigarren alegazioari dagokionez, Ganbera honek ez du inoiz esan Kontratazio Atariak inolako kontrolik ez duenik. Esan duena da kontrola ez dela osoa; hau da, ez direla betetzen ari aipatutako atarian aurreikusitako eremu guztiak.

Hirugarren alegazioari buruz, agerikoa da txostenean identifikatutako sistema desberdinetako kodetxeen artean homogeneotasunik ez izateak modu nabarmenean mugatzen duela kontratazio-espedienteen trazabilitatea.

-Laugarren alegazioari dagokionez, adierazten dugu Ganbera honek bere iritzia eman duela zatikatze-arriskuaren zantzuei dagokienez. Horri buruz, txostenaren 7. orrialdean nabarmendu dugu zantzuak egoteak ez duela esan nahi gertakari egiazatuak daudenik, eta ezin dela baieztapenik egin zehazki aztertua izaten ari den arriskuari buruz. Baina adierazten duena da arlo jakin batean arreta berezia jarri behar dela kontratazio publikoko egoera anomaloak edo nahi ez direnak ezeztatze edo baieztatze.

Lan honetan egin dugun analisia datuen analisi masiboaren bidez egin da, zerbitzu desberdinen xedea konbinatuz, ataritik ateratzen den informazioaren arabera, munta txikiko kontratazio-araubidean onartzen diren muga ekonomikoen barruan fakturatutako zenbatekoekin.

Gastu-unitate funtzionalekiko harremanari eta kontsiderazioari buruz argudiatutako planteamendua zuzena bada ere, Ganbera honen iritziz, balizko zatikatze-zantzuak ikusten diren zenbait egoera hauteman dira, bai izaera horizontaleko gastuetan (hau da, antzeko zerbitzuak ematen direla Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu guztietan edo ia guztietan), bai departamentu desberdinei berariaz eragiten dietenetan. Bestela esanda, departamentuetan emandako zerbitzuak zeharkakoak izatea edo ez izatea ez da, bere horretan, zatikatze-arriskuaren adierazlea, alegazioko testuan iradokitzen den eran.

Hortaz, gure baieztapena azaldutako zentzuan eta testuinguruan ulertu behar da.

-Bosgarren alegazioari dagokionez, ulertzen dugu gomendioa ezartzen ahal dela aplikazioagatik beragatik beharrezkoak diren salbuespenak kontuan hartuta, eta elkarte behartuz kasu orokorretan, hor hauteman baitugu urritasuna.

-Seigarren eta zazpigarren alegazioei dagokienez, txostenean ederki identifikatu dira kontratazio-organo bakoitzaren ardurak, Kontratazio Atarian argitalpenak egiteko dituzten betebeharrei dagokie-

nez. Hala eta guztiz ere, adierazten dugu Kontratazio Publikorako Batzordearen eginkizunak eta ardurak direla, besteak beste, honako hauek, apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen, Kontratu Publikoari buruzkoaren, 119. artikuluari jarraituz:

- *“Entitateen kontratazio publikoaren sistemaren jarduna egokia izatea zaintzeko zeregina*
- *Nafarroako Kontratazioaren Ataria kudeatzea.*
- *Erregelamenduz ezartzen diren beste guztiak, Nafarroako Foru Komunitatean kontratazio publikoaren sistemak ongi funtzionatzeko behar direnak”.*

Gure iritziz eginkizun horiek Nafarroako Kontratazioaren Atarian sartzen den informazioaren hobekuntzarekin eta kontrolarekin lerrokatuta daude.

-Zortzigarren alegazioari buruz, adierazten dugu kontratu-aldaketa eduki ahal izan duten kontratu gisa identifikatu ditugun zortzi kontratuetan bi espediente daudela, zeinetan aurreikusita baitzegoen aipatutako kontratazioari buruzko foru legearen 171. artikuluan ezarritakoa, alegazioetan adierazten zaigun eran. Egiaztatu dugu hautemandako desbideratzeek, kontratu horietan ere, eta aipatutako lege-aurreikuspen hori horrela izanik ere, dagokien kontratu-aldaketa eragin izanen luketela edonola ere, eta beraz, aldaketa-iragarkia argitaratu izanen zela Nafarroako Kontratazioaren Atarian.

Dena den, testua argiago uzte aldera, dagokion paragrafoa aldatu dugu behin betiko txostenean.

Iruñean, 2024ko azaroaren 27an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

